



GOROZIKA NATURA ESKOLA  
2012-2013 RAKO PROPOSAMENAK/AKTIBITATEAK





## ***Nortzuk gara?***

1998an Berenberegi Kultur Elkartek, euskara bultzatzeko helburuarekin, Gorozikako auzo-eskolan, GoroziKa barnetegiaren proiektua jarri zuen abian.

2005ean, horretan oinarriturik -GoroziKa auzo euskalduna eta balio natural handiko lekua dela- GoroziKa Natura Eskola proiektuarekin hasi ginen. Hasierako helburuari, Natura ezagutzea lotu genion. Egitasmo honen helburu nagusia, Urdaibaiko ekosistemak ezagutzea eta erlazioak aztertzea zen.

2008an, aurrekoari euskal kultura eta mitologia ezagutzea gehitu genion.

2010ean GoroziKa Natura Ibiltaria proiektuarekin hasi ginen, Natura ikasgeletara hurbiltzeko asmoarekin.

2012ean proiektu berria jarri dugu martxan: "GoroziKa Emozioen Eskola"

## ***Non gaude?***

Gorozikako auzo-eskolan gaude, gaur egun Muxikaren auzoa dena, 1965ean egin zen bategite prozesuaren ondorioz.

Urdaibaiko gune altuan kokaturik, Oiz eta Bizkargi mendien artean, Oka ibaiaren jaiolakua -Urdaibaiko ardatz nagusia- bertan kokatzen da. Gune altuko honetan, erliebe oso aldapatsu dugu, izan ere bertan daude Urdaibaiko tontorrik garaienak: Bizkargi, Arburu eta Atxeli bezalako mendien hegaletan sortzen dira lurralde honetako ibairik garrantzitsuenak. Mendien arteko haranetan edo magaletan, biztanleek baserrietan bizitzen jarraitzen dute, eta honen ondorioz, GoroziKa bezalako auzoetan nekazaritzak eta abeltzaintzak bizirik diraute oraindik.

## ***Gure helburu orokorrak***

- Gure inguru soziala eta naturala ulertuz, honen kalitatea hobetzeko ezagutzak geureganatu nahi ditugu.
- Esperientziaren bidezko gaitasunak garatu nahi ditugu.
- Egoera desberdinen aurrean modu adierazkor, baketsu, sortzaile eta solidarioan jarrerak, baloreak eta segurtasuna eraiki nahi ditugu.

### **Zer egiten dugu? Nori zuzenduta?**

Gure proiektuak gero eta zabalagoak dira. Batzuk Gorozikan bertan jorratzen ditugu; beste batzuk Gorozikatik kanpo. Gaur egun indarrean ditugunak ondokoak dira:

- a. *Natura Eskola*: Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.
- b. *Gure arbasoen eskola*: Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.
- c. *Emozioen eskola*: Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza, Bigarren hezkuntzako ikasleei eta irakasleei zuzenduta dago.
- d. *Asteburuetako egonaldiak*: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle eta senitartekoentzat.
- e. Udalekuak: Udako hilabeteetan:
  - Uztailean ingeles udalekuak, The Farm Summercamps enpresarekin elkarlanean.
  - Abuztuan eta iraila hasieran udaleku elebidunak.
- f. *GoroziKa ibiltaria*: Ibilbide ekologiko/kulturalak.
- g. *Hitzaldi eta tailerrak ikasteetxetan*  
Gizarte gaitasunak<sup>(1)</sup>  
*Gaitasunak lortzeko ingurugiro gaiak*

(1) Soilik erdaraz

### **Nolako egonaldiak antolatzen ditugu?**

- Egun batekoak (gaua ez):
- Bi, hiru, lau edo bost egunekoak



## NATURA ESKOLA

### Gure helburua

Ekosistemen garrantzia ezagutu eta ulertu ondoren, hurrengo pausua kontzientzia hartzea dela uste dugu, hau da, jakin behar dugu gure eguneroko ekintzek eta ohiturek zelako eragina duten ekosistema horietan. Aurrekoaren bidez, adierazkortasuna, curiositatea, ahalmen sortzailea eta autonomia landu, eta honekin, taldean elkarbizitza eta talde lana bultzatzen ditugu.

### Arlo nagusiak

#### ▪ BASERRI MUNDUA



Baserritarren bizimodua eta landa eremuko elementuak ezagutzen ditugu: ortuak, landak, abereak ... Horretarako bertako baserritarrekin harreman zuzena izateko aukera dugu. Horrekin hurrengoia landu nahi dugu:

- Baserritarrak inguruaren kontserbazioan duen garrantzia.
- Naturarekin duen harremana.
- Ortuariaren identifikazioa.
- Hazien tailerra.
- Abereekiko harreman zuzena.
- Sukaldaritza: ogia, mermelada, taloa,
- bizkotxoak, erroskilak, magdalenak...



#### ▪ GEOLOGIA.



Gorozikako geologia aztertzen dugu eta honek ekosistema bakoitzarekin duen lotura. Hauxe lantzen dugu:

- Haitz eta landarediaren arteko harremana.
- Harro geologikoa.
- Ura nola eskuratu.

▪ **EKOSISTEMA DESBERDINEN AZTERKETA**

Zer dira ekosistemak? Nola sortzen dira? Zein da ekosistemen kontserbazioaren garrantzia? Zeintzuk dira ekosistema bakoitzaren landare eta animaliak? Zeintzuk dira funtzioak eta bizidunen arteko erlazioak? Hau guztia aztertzen dugu hurrengoetan:



○ **BASO MIXTOA.** Zuhaitz eta fruituak berezitu, animalien aztarnak eta bizilekuak aurkitu eta interpretatu.

○ **ERREKA.** Galeri basoko landaretzaren identifikazioa. Uraren garrantzia eta zikloa. Ura eta ibaien erabilpenak, uraren energia. Uraren bidea gure etxeetara heldu arte. Uraren analisi fisiko/kimikoa eta biologikoa.

○ **PADURA.** Urdaibaiko paduraren garrantzia. Bertako landare eta animalien adaptazioak. Hegazti migratzaileentzako duten garrantzia.

○ **ARTADIA.** Urdaibaiko babes bereziko ekosistema. Jatorri mediterraneoko basoa. Gaur egun atlantikoan guneko karstikoetan ezarrita. Ohian itxurakoa, zuhaitz eta landare espezie desberdin askorekin, babesleku ezin hobea bertoko fauna anitzarentzat.



○ **KOSTALDEA.** Urdaibaiko babes bereziko ekosistema. Paisaiez gain, ekosistema honetan soilik ikusi ditzakegun animalia eta landareetarako hurbilketa.

○ **LANDAZABALA ATLANTIKOA.** Gorozikako ingurunea natura eta gizakien arteko elkarrenganako eragina baloratzeko sekulako baliabidea.

○ **HEGAZTIEN BEHAKETA.** Lur eta ur hegaztien behaketa eta ohiturak ezagutu, migratzaileak eta bertakoak desberdindu.

- Hegaztien identifikazioa eta habitat.
- Hegaztien migrazioak.
- Habiak eta jan lekuak egiteko tailerrak.



○ **HONDAKINAK.** Sortzen ditugun hondakin kopuru handien ondorioak:

- Lehengaien erabilpena.
- Gastu energetikoa.

- Murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena.
- Jostailuen tailerra.

## Metodologia

Hiru baliabide didaktiko nagusi erabiltzen ditugu:

- **Ibilbideak.** Hauei esker, ikusten duguna interpretatzen ikasten dugu. Ingurunean gertatu diren aldaketez ohartuz, gizakiok dugun obserbazio gaitasuna piztea dugu helburu.
- **Tailerrak.** Aurrekoaren ekintza gehigarriak dira. Hauekin sormena, adierazkortasuna eta talde dinamika lantzen dugu.



- **Jolasa.** Ezinbesteko baliabidea da portaera desberdinak eta erlazio sozialak ulertzeko eta orekatzeko. Era positiboan elkarrekin erlazionatzen laguntzen digu, jolasaren bidez sentitu, esperimintatu, analizatu, bilatu, baieztatu eta aukeratu egiten dugu. Jolasa da umeen jarduerarik gogokoena: hezkuntza-tresna naturala, boluntarioa, atsegina eta bat-batekoa. Jolasa oinarrizkoa izango da beren ezagutza eta emozioen mailako gaitasunak lortzeko, baita gaitasun horiek garatu eta sozializatzeko ere.



## GURE ARBASOEN ESKOLA

Hurrengo gaiak lantzen ditugu:

### ▪ HISTORIAURREA

Planteamendu didaktiko eta ludikoen bitartez, gaur egunera arteko gizakiaren bizimoduaren eboluziora hurbiltzen gara. Honi, naturarekin dugun erlazioaren eboluzioa ere lotzen diogu.

### ▪ SENDABELARRAK

Natura ezagutuzten dugu sendabelarren bitartez. Eta gure arbasoen osasunean berauen erabilpenak izan zuen garrantzia ere ikasten dugu. Gai hauek lantzen ditugu:

- Sendabelarren identifikazioa
- Ukenduak
- Kremak
- Sorginak eta petrikiloak
- Medikuntzaren sorrera



### ▪ EUSKAL MITOLOGIA.



Gainerako herri eta kulturetan gertatzen den bezala, euskal mitologiaren oinarriak ere, alegiazko kontakizun, elezahar, sasi-jainko eta antzinako heroien balizko egintza edo egiazko gertaeren kondairak dira; gehienetan, izadiaren indarra edo gizakia eta jainuen arteko harremana kontaktzen dute.

Gorozikako antzinako kondairak ezagutarazi eta interpretatzen ditugu. Izaki mitologikoen nolakotasuna ere ikasten dugu. Gai hauek jorratzen ditugu:

- Euskal Herriko kondairak
- Izaki mitologikoak
- Antzezlanak
- Ukenduak eta edabe magikoak
- Akelarrea

## ▪ EUSKAL KULTURA

Hizkuntza gramatika hutsa baino gehiago dela ikusi denetik, gero eta gehiagotan aipatzen dira eduki kulturalak. Hizkuntza ikasteko oso lagungarria da hizkuntza hori sostengatzen duen kultura ezagutzea. Horretan oinarrituta, hurrengoan sakontzen dugu:



- Euskal herriko folklorea: euskal kantzak, dantzak, festagileak...
- Euskal jolasak
- Ohitura zaharrak
- Euskal errezetak
- Eskupilota tailerra
- Zumetza





## EMOZIOEN ESKOLA

### Sentimendu eta portaerak

Hurrengo sentimendu eta jarrerak lantzen ditugu: errespetua, elkertasuna, lankidetzeta, enpatia, justizia, zuzentasuna, eskubideak eta betebeharrak, gurea bezalakoa eta gurea ez bezalakoa (antzekotasuna, identitatea, arraza, generoa, ezintasun fisikoa, kultura/sozializazioa)

### Sentimendu eta portaerak garatzearen helburua



Sare nahaspilatsuen parte gara, interdependentzia erlazio askoren menpe gaude, eta horien oreka behar dugu bizi ahal izateko. Gure ongizatea, neurri handi batean, ditugun harremanen menpe dago

Hezkuntza eta gizarteratzea zoriontsuak izan gaitzen eta harreman hobekak izan ditzagun, giza gaitasunen garapenean eta denon ongizatea lortzean oinarritzen direla uste dugu.

### Nola?

Metodologia parte-hartzailearen bidez, bakoitzaren hasierako ezagutzak eta esperientziak baliatzen ditugu, eta jolasaren bitartez, esperientzia berriak ikasteko aprobetxatu. Gure emozioekin kontaktuan jarriz eta tresna errazak erabiliz, gatazka egoerei era baketsuan irtenbidea ematen laguntzen diegu.



### Zerekin?

Aurkezpen eta konfiantza dinamikak, jolas librea, rolen jolasak eta jolas kooperatiboa, akrosport, fantasia, interpretazioa eta ipuinak.

## ESKOLA IBILTARIA

### IBILBIDE GIDATUAK

Hainbat ibilbide egiten ditugu Urdaibai Biosfera Erreserbatik:



- ❖ GERNIKA: Juntetxea, Europako Herrien Parkea, Chillida eta H. Mooren eskulturak, "Gernika"ren Murala zeramikan egina, JAI-ALAI pilotalekua, merkatua. Iraupena bi ordu.
- ❖ BERMEO: Lamera Parkea, Portu Zaharra, Ertzilla Dorretxea, Talaia, itsaslabarrak, Doniene Arkua, Udaletxea, Sta M<sup>a</sup> Eliza, S. Prantzisko Klaustroa. Iraupena bi ordu.
- ❖ GAZTELUGATXEKO SAN JUAN: Itsaslabarrak, biotopoa, fauna eta floraren berezitasunak, San Juan basiliza. Iraupena hiru ordu.
- ❖ HEGAZTIEN BEHAKETA: Urdaibaiko paduretara hurbiltzen diren hegaztien migrazioa. Gehienez 15 pertsona. Sasoi aproposenak: irailtik martxora bitartean. Iraupena bi/hiru ordu.
- ❖ ARTEAGA, Landazabala, ilasaldien errota, eliza, ur errotak, artadia, landaketak, Arteagako gaztelua, hegaztien behaketa. Sasoi egokienak irailtik martxora bitartean. Iraupena bi/hiru ordu eta erdi.



#### ❖ BUSTURIA

- a) 1<sup>o</sup> Urdaibaiko padurak, haretzak, altzadiak, lezkadiak, eta ehagaztien behaketa sasoi egokienetan lurapena bi ordu.
  - b) 2<sup>o</sup> San Cristóbal-Txatxarramendi irla: padurak, landazabala, eta txatxarramendiko parke botanikoa. Iraupena 3 ordu eta erdi
  - c) 3<sup>o</sup> Axpe-Sukarrieta: hariztia, Axpeko koba, Sta. Maria eliza, Kurtzio basiliza, Zin bidea, dolinak, landaketak, txatxarramendiko parkea. Iraupena bi ordu
  - d) 4<sup>o</sup> Axpe-Katillotxu- Sukarrieta: Sta. Maria eliza, landaketak, landazabala, historiaurreko aztarnategiak. Paisai interpretazioa. Iraupena hiru ordu eta erdi.
- ❖ FORUA: S. Martin eliza, erromatarren aztarnategia, barnealdeko padurak, landaredia eta fauna, landazabala, Triñeko basiliza. Iraupena bi ordu.
  - ❖ GOROZIKA-BIZKARGI: Landazabala, Burdin-gerrikoa, ametzak, Bizkargi tontorra eta ermita. Iraupena bi ordu
  - ❖ GOROZIKA-S. ROMAN: Landazabala, Urkietako artea, Besangiz, San Roman Basiliza, Muxika dorretxea. Iraupena: bi ordu
  - ❖ GERNIKA/LUMO-KORTEZUBI: Lezkadia, landazabala, hegaztien behaketa. Sasoirik egokiena irailtik martxora. Iraupena bi/hiru ordu.

## HITZALDI ETA TAILERRAK IKASTETXEETAN

### 1. Gizarte gaitasunak

**Generoa:** Tailerrak bata bestearekiko askeak dira. Bloke osoa edo banaka eskatu daitezke

- Gatazken maneia
- Genero rola haurtzarotik
- Genero maneia ikasgelan
- Emakumeen enpoderamendua.

**Gatazken maneia:** Tailerrak bata bestearekiko askeak dira baina elkarrekin erlazionaturik daudenez, gaien progresiboki sakondu daiteke. Hobeto aprobetxatzeko, proposatzen dugun ordena jarraitzea aholkatzen dugu.

- Gatazka.
- Komunikazio tresnak.
- Kultura arteko gatazkek.



**Ingurugiroa:** Tailerrak bata bestearekiko askeak dira, baina gai guztiak bata besteekin lotu daitezke.

- Hazkunde beherakada.
- Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua.
- Elikagai subiranotasuna eta transgenikoak.
- Hondakinak. Ontzien legea.



**Komunikazioa:** Tailerrak bata bestearekiko askeak dira baina gai guztiak interdependentzia dute.

- Asertibitatea
- Komunikatzeko gaitasunak
- Nola hitz egin jende aurrean

**Hezkuntza:** Tailer guztiak gaitasunen garapenarekin erlazionaturik daude, baina gaiak banaka eska daitezke.

- Era askotako adimenak
- Resiliencia

#### **Dibertsitatearen maneia ikasgelan**

- Interkulturalitatea: Multikulturalitatetik interkulturalitatera
- Hezkuntza interkulturala ikastetxeetan

**Metodologia:** sesioak ikaskuntza eraikitzea baimenduko duen metodologia parte-hartzaile eta praktikoaren bidez garatuko dira.

## **2. Gaitasunak lortzeko ingurugiro gaiak**

Natura bera ikasgelara hurbiltzen dugu gaurkotasuna duten gaiak landuz:

Bloke desberdinetan banandu ditugu:

**2.1. Arazo globalak.** Hauen eragina mundu mailakoa da:

- Aldaketa klimatikoa. Zertan datza klima aldaketaren arazoa? Bakoitzak zer egin dezake? Zeintzuk dira aukerak Klima aldaketaren aurka?
- Ozono geruzaren suntsipena. Zer da ozono geruza? Zein da bere funtzioa eta garrantzia? Nola suntsitzen da ozono geruza? zerk eragiten du ozono geruzaren zuloa?

- Biodibertsitatearen galera. Zer da biodibertsitatea? Izaki guztiak gara garrantzitsuak eta baliogarriak? Ekosistemen zatiketa, suntsipen partziala edo totala. Kutsaduraren eragina. Ustiapen intentsiboa, espezieen trafikoa. Biodibertsitatearen galera.
- **Kutsadura.** Kutsadura da gainerako arazoen arrazoia. Kutsadura mota desberdinak: atmosferikoa, urarena, lurarena ...
- **Uraren eskasia.** Uraren beharra eta erabilpena. Ur eskasia eta pobrezia arteko erlazioa.
- **Basamortutzea.** Landa eremuen eta basoen desagertzea. Ustiaketa intentsiboa.
- **Transgenikoak.** Zer dira? , nondik datoz? zertarako ekoizten dira? Ze eragin dute osasunean eta ingurumenean?
- **Zaborra eta birziklapena.** Hondakin gehiegi sortzen dugu. Hondakinak eta hazkuntza ekonomikoaren arteko erlazioa. Ekoizten dugun zabor kantitatea,



dena beharrezkoa da? Zaborraren munduan bizi gara? Gaur egungo ohiturak. Birziklapena zer da, irtenbidea da? Hondakinak: Sortzen ditugun hondakin kopuru handiak bere ondorioak ditu: lehengaiak eta energia neurritz kanpo erabiltzea, klima aldaketa areagotzea

eta natur baliabideak agortzea. Lehengaien erabilpena. Gastu energetikoa. Murrizketa, Berrerabilpena eta birziklapena. Jostailuen tailerra

- **Baso-landaketak** Jatorria, ustiaketa, espezieen identifikazioa. Landaketa eta baso naturalen arteko desberdintasunak eta erlazioa,
- **Energia berriztagarriak.** Energiaren beharra, nondik datorren erabiltzen dugun energia. Energia berriztagarriak eta euren abantailak

**2.2. Eskualdeko arazoak.** Hurbilago ditugunak, gure inguruan ikusteko gai garenak. Aurreko arloan aipatu ditugun batzuk, gure inguruan ere emango dira:

- **Landare eta animalia inbaditzaileak.** Bertoko dibertsitatearen galeraren arrazoi handi bat. Jatorria, erabilpena, espezien identifikazioa, gaur egungo egoera. Espezie arrotz eta inbaditzaileen arteko ezberdintasunak.
- **Desagertzeko arriskuan dagoen fauna.** Identifikazioa eta ezagutza
- **Desagertzeko arriskuan dagoen flora.** Identifikazioa eta ezagutza

### 2.3. Beste gai interesgarriak

- **Bertoko haziak.** Barietateen garrantzia, inguruan ondoen moldatzen diren landareak. Baserritarren autonomiaren bermea. Bertoko hazi eta espezien galera. Bertoko hazien barietateen garrantzia. Gaur egungo barietate komertzialak
- **Sendabelarrak.** Hurbilen ditugun sendabelarren identifikazioa eta erabilera.



Honi lotutako tailer desberdinak, usaindun poltsak, xaboiak, ukenduak ...

- **Basoaren erabilpen anitza.**

Monolaborantzek bertoko basoetan duten eragina. Basoaren funtzio desberdinak.

- **Jostailu birziklatuak.** Hondakinak jostailu bihurtzeko tailerra
- **Esperimentuen laborategia:** Esperimentuen bidez, modu praktikoan, eguneroko gertaeren zergatia aztertzen dugu. Fenomeno naturalen zergatia. Fisika-kimika saiakuntzak. Landareekin saiakuntzak
- **Hegaztien migrazioa.** Migrazioa da espezie batzuek inguruko aldaketei moldatzeko duten modu berezia: negua edo ugalketa-garaia iristen denean, ehunka animaliak egiten duten bidaiak bizirik irauteko lekuri egokien bila.
- **Osasuna.** Ingurumenaren arazoek guregan duten eragina.